HIRU MILA KATOLIKO ERREZATZEN



Abuztuaren 17'an, Londres'en, Westminster'ko katedralera hiru mila katoliko bildu ziren otoitz egitera, jerarkiak obeki konpreni ditzan ezkontz-prolemak.

«Humanae vitae» enziklikaren ondorioz hamaika esaklzun eta erranbide entzun dira bazter guzietarik. Gauza jakiña, zeren nehork ez zuen espero holako enziklikarik. Harridura. Zergatik baztertu zen Kontziliotik gai hunen eztabaida, Vaticano'ko II'garrenaren izpirituarekin ados bazetorren? Nola holako enziklika, nundik, natalitate-batzarreko guzien iritzia zabalagoa bazen?

Katoliko laikoen artean egin diren inkestetan gauza bat ikusten da: harridura, eta gehienean nahasmendua eta jazardura. Bainan ez jende xehea bakarrik: baita ere intelektualak (horra or, adibidez, Carlo Bo katedraduna, Unibersitate-erretora). Teologilari eta apaizak ere: Hola Karl Rahner batek bere harridura jakinarazi ondoren «beste iritzi batekoa izan ditekeala» manifestatu du.

Bestalde, Bernard Häring, Eliza katolikoak duen moral-irakasle onena omen dana, gizon zuhurra eta moderatua, Aita Santuaren kontseilari eta lagun urkoa, ez da kontent dalako enziklikarekin: Alta Lurran'en agiria firmatu du, beste 450 irakasle ta teologilarlkin ados. Agiri kritiko hortan heien iritzia publikoki ager-arazitzea beharrezkoa iruditzen zaiela diote. Alemania'n ere holako zerbait gertatu omen da...

Guzi honekin gauza on bat ikusten ari gara. Eliza kritika-gai biurtzen ari da. Katolikoak eta «borondate oneko» gizonak beren erresponsabilitatearen kontzientzia hartzen ari dira. Eta katolikuok talde sentitzen hasiak gara eta taldearen martxaz arduratzen.

Gure hiru mila katoliko otoizlarien egitatea hola entenditu behar da. Egitate lardestzaile eta erresponsablea bezala ez «zenbait estremisten erreboltа» bezala. Gertakariak hola judikatzen ez baditugu, oraInarteko Eliza'ren gaitz handienean eroriko gara: triunfalismoan.

I. S.

EUSKAL-MUSIKA ARIÑAREN GAITZA ETA ETORKIZUNA



Aurten Eibar'ko Sanjuanetan berri pozgarri bat eskeiñi zigu-ten antolatzailleak: euskal-kantaren Interpreteen Jaialdia. Bakarka, Estitxu atera zan garaille; eta, taldeka, Pasaiko Oskarbi taldea.

Gaur egunean, Estitxu dugu, zalantzarikan gabe, gure doñua interpretatzeko doaiez aberatsena dan euskal artixta. Agian, oraindlo, internazionalki soñugailluetan gehien nabarmentzen diran kantakera batzuk sobera eraginda arkitzen da. Baiña seguru ogon gindezke bere golko neurriari dagokion musikagille bat arki dezanean, gure euskal-soñu ariñak ba duela bere interpreterik gorena.